

Topaketa

BERDINTASUNA, IRAUNKORTASUNA ETA GIZA ESKUBIDEAK: EMAKUMEEN ZEREGIN ERABAKIGARRIA AGENDA 2030ean

BBK KUNA (BILBO)

Irailaren 7a

Streaming bidez emango da.

Sarrera

Erakunde feministek, emakumeen erakundeek eta giza eskubideen aldeko erakundeek funtsezko zeregina izan dute eta daukate genero-berdintasuna eta giza eskubideak 2030 Agendaren erdigunean daudela ziurtatzeko. Gure egunerokoan eta gure inguruan, emakume-erakunde asko borrokan ari dira giza eskubideen printzipioak eta betebeharrak gizartearen esparru guztietan islatuta eta agerian gera daitezen, hain zuzen ere, zientzian, kulturen, lankidetzan, kirolan, aniztasunetan eta abarren esparruetan, eta oraindik aurrera egiteko dugun lana gogorarazten digute.

Topaketa honetan, emakumeek eta feminismoak emakumeen eskubideak lortzeko duten zereginari buruz hausnartuko dugu, giza garapen jasangarrirako funtsezko elementuak baitira, bai 2030 Agendaren bai giza eskubideen esparruan. Era berean, garapen jasangarriaren eremu bakoitzeko emakumeen erakundeen lanaren berri izango dugu, eskubideen ikuspegitik. Ondoren, zailtasunak, erronkak eta aukerak partekatuko ditugu, elkarrekin hobeto antolatzeke asmoz.

Topaketa hau **Futuro en Común** esparruan dago. Futuro en Común pobrezia eta desberdintasunen kausa globalekin eta tokiko kausekin amaitzeko lan egiten duten askotariko sektoreetako erakunde eta kolektiboen arteko topagune bizia da, 2030 Agendaren esparruan. Hori guztia, gizarte zibil antolatuaren sektore eta eragileen arteko elkarrizketatik abiatuta, aldaketaren palanka izan dadin. Hain zuzen ere, topaketa hau UN Etxeak eta Futuro en Común, beste erakunde batzuekin batera, 2023aren amaieran Euskal Gizarte Zibilaren lehen Topaketan abiaraziko dituen topaketa tematikoetako bigarrena da.

Helburuak

- Giza garapen jasangarriari eta giza eskubideei buruzko ezagutza zabaltzea, emakumeen eskubideen errealitatera hurbilduz, giza garapen jasangarriaren funtsezko elementuak baitira.
- Giza eskubideen eta garapen jasangarriaren eremuan diharduten emakumeen erakundeen esperientzien berri izatea.
- Emakumeek 2030 Agendan dituzten eskubideei buruz eztabaidatzeko eta hausnartzeko gune bat sustatzea Euskadin.
- Erakundeen arteko sareak eta aliantzak eraikitzen laguntzea.

Nori zuzentzen zaion

Topaketaren xede-taldea, oro har, sozietate zibileko erakundeetako langileak eta boluntarioak dira eta, bereziki, berdintasunaren, feminismoaren, giza eskubideen eta garapen jasangarriaren eremuetan dihardutenak. Administrazio publikoetako, hezkuntzako eta sindikatuetaiko politikariek, teknikariek eta akademikoek ere hartu ahalko dute parte.

Behin-behineko programa

15:00-15:15 Inskripzioa eta ongietorria.

15:15-15:30 Inaugurazio-mahaia:
Arantzasu Acha de la Presa, UN Etxeko zuzendaria
Filomena Ruggiero, Futuro en Común ekimenaren ordezkaria

15:30-16:00 "Emakumeen eskubideen berrikuspen bat Nazio Batuen 2030 Agendaren eta garapen jasangarrirako helburuen esparruan".
Filomena Ruggiero, SEDRA-FPFE Familia Plangintzarako Federazioa.

16:00-17:30 Ekimenen aurkezpen azkarrak

- Afrocolectiva
- Bidaya elkatea
- Clara Campoamor Elkarte
- EGK – Euskadiko Gazte Kontseilua
- Emakumeak Zientzian
- Euskadiko GGKEen Koordinakundea
- Euskadiko Emakume Ijitoen Elkarte (AMUGE)
- Femme Shapers
- Gaman Diversidad e Inclusión
- Landa XXI Baserritar Inguruko Emakumeak
- Emakumeak Aniztasunean
- Ola Sin Plástico (planeta zaintzeko elkarte ekofeminista)
- Professional Women's Network Bilbao

17:30-18:30 *Networkinga*. Norantz goaz?

18:30-18:45 Ondorioak, hurrengo urratsak eta itxiera.

Ekitaldian, **edari eta janari osasungarriko** zerbitzu bat egongo da.

Hizkuntza

Aurkezpenak gaztelaniaz izango dira, bestelakorik zehaztu ezean. Hizlariei eta entzuleei bai euskaraz bai gaztelaniaz mintzatzeko eskubidea bermatuko zaie.

Izena emateko inprimakia
[Izen ematea | Inscripción \(google.com\)](#)

Streaming bidezko emankizuna
[UN Etxea - Asociación del País Vasco para la UNESCO - YouTube](#)

Antolatzaileak:



Finantzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES